



## 2016ko ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA HEZKUNTZA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak publiko egin du Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako 2016ko Enplegu Publikorako Eskaintzan (EPE) eskainiko dituen 577 plazzen banaketa, espezialitateen arabera. Plaza horiek, honela banatuko dira:

Espezialitateak	Plaza kopurua
Latina	14
Musika	13
Gaztelania eta Literatura	74
Geografia eta Historia	54
Matematika	57
Fisika eta Kimika	33
Biologia eta Geologia	61
Frantsesa	16
Ingelesa	80
Gorputz-hezkuntza	29
Teknologia	36
Euskara eta Literatura	84
Hezkuntza Orientabidea	9
Informatika	13
Ekonomia	4
<b>Guztira</b>	<b>577</b>

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak otsaileko bigarren astean argitaratuko du Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuaren deialdia. Argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da EPEan izena emateko epea. Beraz, honako hau da izangaiek kontuan izan beharreko egutegia:

- Eskaerak bete eta merituak aurkeztea: 2016ko otsailaren bigarren astetik aurrera
- Programazio didaktikoa entregatzea: 2016ko martxoaren erdialdera
- Oposizio faseko lehen proba: 2016ko ekainaren bigarren hamabostaldian

### Probak:

Hautaketa-prozesuak bi proba izango ditu, eta horietako bakoitza bi zatitan egitaratuko da. Probetako bakoitza kanporatzailea izango da.

**Lehen proban** gai bat idatziz garatu beharko da, espezialitateari dagokion gairerrendako gai baten inguruan, eta ariketa praktiko bat egin. Proba kanporatzailea izango da.